48 23
URDAIBAI ITSASADARRA

Oka ibaiaren arroak 230 km2 inguruko azalera du. Luzera 20 kilometro ingurukoa da, eta horietatik, erdia baino gehiago Urdaibai Itsasadarreko estuarioaren lautadari dagozkio (aspaldiko garaietan, Gernikako Itsasadarra edo Mundakako Itsasadarra izenarekin ezagututa).

Honako udal mugarteekin lotuta dago, iparraldetik hegoaldera: ezkerraldean: Mundaka, Sukarrieta (Pedernales), Busturia, Murueta, Forua eta Gernika-Lumo.; eskuinaldean: Ibarrangelu, Gauzteguiz-Arteaga, Kortezubi, Arratzu eta Ajangiz.

Sistema naturalaren berezitasunak, agrosistema tradizionaleko berezitasunekin eta zonaldea ustiatzeko egungo ereduekin batera, hiru paisaia unitatetan adierazten dira:

- Haran hondoa: estuarioetako hondartzak (1) eta padurak (2), iparraldean eta hegoaldean, hurrenez hurren.
- Landazabal atlantikoa, itsasadarreko bi alboekiko paraleloki ezarritako bi zerrendetan garatzen dena (39 eta Gernika inguruan zabaltzen dena (4).
- Plataformak eta tontorrak (300-400 m.), Kantauriko artadiz estalita (5). Horiek itsasadarra ixten dute ekialdetik (artadia bertan sarriago agertzen da), zein mendebaldetik.

Ibaietako korronteek aurrera egin dute euren amaierako zatian, diapiro haustura baten bidez. Haren muin suprastikoa, buztinez, igeltsuez eta Keuper-en txertaketa ofitikoez osatuta, gehienbat, hondartzaren eta paduraren hondakinez estalita geratzen da.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 525494 m // Y: 4803584 m.

1.Hondartzak.
2. Padurak.
3. Landazabal atlantikoa.
4. Gernika Ibarreko landazabala.
5. Kantaurikoaren artadia.

geo euskadi

Ikuspegi hidrologikoaren arabera, azaleko ubideek ekarpen apala egiten. dute, eta bien bitartean, itsasadarraren bi alboetako goi erliebetako kareharrien azaleratze ugariei esker, isurketa zati handi bat lur azpitik ematen da, eta horren ondorioz, karstiar drainatze garrantzitsuenetariko batzuk zuzenean itsasadarreko bi alboetan sortzen dira, oinarrizko mailatik behera.


Urdaibai itsasadarra betetzen duten tokiko materialak itsasadarreko albo banatan sortzen diren Keuper-en buztin margetatik datoz. Horiek, errekako uren eraginez, higatu egiten dira, eta lohien eta basen metaketa bat sortzen duten ubidean. Azalerako tokiko material betegarria itsasotik etorritako hondarrei dagokie. Horiek ahokaduratik nolabait gertu dauden zonaldetan biltzeko joera dute. Ahoko hondartzetatik eratorritako metaketa eolikoa ere garrantzitsua da: haizeak materialak itsasadarraren barrurantz garraiatzen ditu, eta itsasbeherak, ondoren, horiek are barruago dauden zonaldetara bultzatzen ditu. Bestalde, paduren konolizatze sistematikoari esker, barrak garatzen dira, itsasbeheran materialik arrastatzen ez delako, eta ondorioz, itsasotik eratorritako sedimentazio gehiago kanporantz baino gehiago barrualderantz zuzentzen da.

Itsasadarraren inguruak klima ozeanikoa nabarmentzen duten ezaugarri klimatikoak ditu. Horrenbestez, tenperaturei dagokienez, urteko tenperaturan ematen den oszilazio urria eta negu aldiko onberatasuna nabarmentzen dira. Azken horren eraginez, urteko batezesteko tenperatura 15° izaten dira. Urteko prezipitazioak, guztira, 1200 mm inguru dira. –ia Gipuzkoako ekialdeko kostaldean erregistratutako baino 500 mm. gutxiago-, fenomeno hori udan prezipitazioen jaitsierarekin lotuta dago, alegia; klima mediterraneoko eragin handiagoa jasotzen duten sektoreen berezkoa.

Itsasadarreko begetazioa askotarikoa da, eta orijinaltasun handiko komunitate begetalak biltzen ditu, tamaina nabarmeneko padurak barne hartuz. Komunitateak, marea kanaletik lur finkoraino, mailakatutako bandetan antolatzen dira, urpetze mailaren eta gazitasun eraginaren arabera egituratuta. Paduraren ustiapen biologikoa osatzen da, bestalde, biomasa handiko fauna aberatsarekin.


Nahiko lehorra eta beroa den klima giro baten babesean, Kantaurikoaren artadiaren eraketek -1500 Ha. baino gehiago-, mediterraneo klima ezin hobe jasaten duten espeziak barne hartzen dituenak, kareharrizko harkaitzen hedadura zabalak kolonizatzen dituzte.

Urdaibaiko arnoak landa bokazio nabarmena kontserbatzen du. Ekoizpen tradizionalen egiturak –baserriak- merkatu ekonomiaren sistema baten barruan sartu arren, badirudi landa guneak, nolabait, gune mugakideetako ugarik izan duten erabateko transformazioei aurre egiten diela. Gernika eta Bermeo industria eta hiri guneez gain eta olgeta eta bizitegi zenbait gunez gain, ekoizpen handiko nekazaritza aprobetxamendua nagusitzen da eta horrek paisaia belardi mosaiko gisa osatu dute abeltzaintza intentsiboko ustiaketarekin, baserriak inguratzen dituzten barazkiekin, basoekin ubideen ondoan, begetazio atlantikoko baso txikiekin eta konifero-sailekin. Laburbilduz, inguruan nabarmen txertatzen den giza ustiapen mota bat.



Litologia+ Itzalen mapa 2012. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi.


Litologia: 1. Kareharriak 2. Margak 3. Argilitak eta/edo limonitak. 4. Lutitak 5. Ofitak. 6. Sumendi-harkaitzak 7. Margo-kareharriak, kareharri margak eta kalkareniten arteko txandaketa. 8. Azaleko metaketak.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Mundakako hirigunea.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.



Urdaibaiko itsasadarreko ingurugiro babes nagusiak:

1. Urdaibai Biosferaren erreserba bere hedadura eta kontserbazio mailarena arabera, Euskal Herriko hezegunerik garrantzitsuena da, eta baita atseden hartzeko eta negua igarotzeko gune garrantzitsua ere, hegazti migratzaileentzat. Horregatik, natura, zientzia, heziketa, kultura, olgeta eta sozio eta ekonomia arloan duen interesarengatik, 1986ko uztailaren 6an ontzat eman zen gunearen erabilera eta babesa araupetzen duen legea, eta Biosferaren Erreserba izendatu zuten. 20x10 km-ko hirukiaren barne inskribatu daiteke.

2. RAMSAR hezegunea. Gune hau Biosferaren Erreserba baino askoz murritzagoa da, hezeguneari bakarrik dagokio. 10x1,5 km inguruko hedadura dauka.
Itzalen mapa 2012+babestutako lekuak (aldatuta). Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi.

Itsasadarreko amaierako sektore honetan hondarren metaketak nagusitzen dira. Horiek aldatzen dira olatuen, haizeen gorabeheren eta gizakien esku-hartze zehatzen arabera. Zonalde honetan, uren gazitasunaren eraginak hezegunearen bizitza baldintzatzen du, itsasbeheran, urek erabat estaltzen baitute, espezie begetal halofiloak barne hartuz (inguru gaziak ondo jasaten dituztenak). Urdaibai itsasadarreko berezko fenomenoen artean, Mundakako olatu ospetsua aurkitzen da.Horrek xarma handia du surflarien artean, eta udazkenean eta neguan agertzen da, haize erregimen zehatz batekin bat eginez.



Kantaurikoaren artadia kareharrizko zonaldeetan hazten da, estuarioaren albo bietan, non, urik ez egotegatik, mediterraneoko espezieak nagusitzen diren. Urdaibai estuarioaren guneak bost artadi multzo hartzen ditu barne 1.450 hektareako azalera batekin. Artadia intentsiboki ustiatu zen ikatza ekoizteko.



Ortoargazkia 1945-46. Amerikar hegaldia, A bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. Paduraren sektorea, Gernika hiriguneko iparraldean.

Padurak partzialki lehortu ziren, eta bertan, ontzi txikiak nabigatzeko kanal bat eraiki zen.

José Lequerica (1896) haren proiektuaz arduratu zen. Lanak 1903.urtean hasi ziren, baina 1910ean eten egin ziren, 2,5 km luzera eraikita zegoenean, lurrak mugitu zirelako. Lanei berriz ekin ondoren, Murueta zonalderaino iritsi zen.

Proiektua hainbatetan aldatu arren eta hura amaitzeko saiakera desberdin egin arren, lanak 4.500 m luzerako amaitu gabeko lana izaten jarraitzen du, bi tarte zuzenekin eta beste kurbo batekin, erdian.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Ezkerraldeko ortoargazkiaren zonalde bera adierazten du, Gernikako hirigunearen iparraldean.

Itsasoari irabazitako partzelen okupatzaileei jabetza uko egin zitzaienez, Kostaldeen Legeetan aurreikusitakoaren ondorioz, padura lehenera ekartzeko lanei ekin egin zitzaien, partzela zaharrak urez betetzen hasi ziren, Oka ibaiaren ubide zaharra lehenera ekartzen hasi zen bere ahokaduran, eta abar.

Bertako kanalek eta gunea lehortzeko egindako betetze lanek sistema lehenera ekartzeko lanak nabarmen zailtzen dituzte, ibaiaren jatorrizko trazadura eten egiten duelako eta itsasoko uren eta ur gozoen emariak baldintzatzen dituelako.

Murueta udalerrian ontziola bat dago, eta horrek ere gunea lehenera ekartzeko lanak oztopatzen dituen elementu bat da, bere jarduerak baldintza geometriko zehatzak eta ur xaflako sakonera baldintza zehatzak behar dituelako, eta horren ondorioz, batzuetan, hondartzen antolaketa aldatu behar izan da, itsasontziek pasa ahal izateko.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

Urdaibai Itsasadarreko Padura Murueta zonaldean, kanalaren muturraren iparraldean.

Itsasadarraren ubide nagusia eta paduren zonaldea ikus daitezke, dagoeneko ur gozoaren nolabaiteko eraginarekin.